

## **NIKOMAKORENTZAKO ETIKA - ARISTOTELES**

- ❖ NE, etika nagusia → Aristotelesen etikako lan garrantzitsuena, eta bere azken hitza etikari dagokionez. Eudemiaren etika eta Etika handiaren gainetik.
- ❖ NEren egiazkotasuna historian:
  - Oro har, autoretza Aristotelesi
  - Zizeron eta Schleiermacherrek Aristotelesen autoretza ukatu.
  - EE eta NE zati batzuk berdinak dira, jatorrizkoa zein den ez dakigu
- ❖ 335-323 urteen artean idatzi. Gero Rodaseko Andronikok bildu, eta homogeneotasuna eman.
- ❖ Arist. 3 etika lanek egitura berdintsua, 6 pausutan garatu:
  1. Ikerketa gaia aurkeztu. Ongi gorena: zoriontasuna. Arazoa: batzuentzat zoriontasuna gauza bat dela eta besteentzat beste bat. Horregatik zoriontasuna zertan datzan garatzen du → ez da pluralista, zoriontasuna bat da, eta horregatik abiapuntua da eta ez helmuga.
  2. Bertute etikoen inguruan
  3. Beste bertute bat: dianoetiko (arimaren atal arrazionalarena)
  4. Bertuteen kontrakoa jorratu: bizioa + akrasia
  5. Laguntasunaren gaia → etikak komunitatearekin du lotura, baina ez da besteekin harremanetan dagoen elementu bakarra (eskuzabaltasuna adib.)
  6. Bigarren eta hirugarren pausuetan sakondu. Ongi/zoriontasun gorena: bertute bikainena.

Galderarekin hasi, erantzunarekin amaitu. Ez dira soilik progresioak, lan osoak dira (osotasun harmoniatsua).
- ❖ Aristotelesen etika da gaurkotasun handiena duen atala, autore askok bere etika baliatu → ibilbideak oraindik arazoak dituelako, eta testuaren berrirakurketa eta eguneraketa proposatzen dute:
  - Gizarte zientziak gertakariak eta baloreak banatzearekin desadostasunagatik (autore alemaniarrek bereziki). Honen aurrean etika neoaristotelikoa aldarrikatu.
  - Kanten "apriorismoaren aurka → Determinismoarekin ezin etika egin.
  - Kanten determinismotik aldentzeko apriorismo moralak (mundo anglosajoiaren)→ Aristoteles: moralak konbentzionalak da.

### **Sarrera:**

#### **Ongien ongia/ ongi gorena:**

NE → ongi gorena eta gizakiaren azken helburua aztertu

- Pluralistak → ongiak anitzak, hierarkiarik ez
- Greziarrak → Ongi asko daude eta hauek mailakatu/hierarkizatu (ez pluralistak)

Aristotelesek → ongien ongia. Honetarako osasuna + dirua, baina ongien ongia helburu izanik.

Ongi gorena: zoriontasuna. Zerbait ona da bilatzen badugu, eta helburua da ona delako. Baldintzak o.o izateko:

- Azkentasuna → gorena da, ongien artean onena
- Autosufizientzia → hau erdiestean ez da ezer faltako, ez du ezerk gainditzen
- Desiragarriena → plazer guztien gainetik bizitza zoriontsua.

#### **Bertuteak:**

Ongien ongia lortzeko → bertutetsua izan behar da.

Zoriona ez da bertute hutsa, bertutearen araberrako ekintza da. Bertutea bertute hutsagatik egin.

Bertute gorena: sophia.

## **LABURPENA**

Etikak → Ongien ongia (zoriontasuna)

- BERTUTEAK (ohiturak): 1. Etikoak → Justizia 2. Dianoetikoak → zoriontasuna ahalbidetu
- plazerrak → zoriontasuna. Etikarekin zerikusia komunitateak → lagunak

Aristotelesen azterketak 4 pausu: 1. Irizpideak 2. Esparrua 3. Esparrua ikertu 4. Irizpideak aplikatu esparrura

### **1. Liburua: ongia eta zoriontasunaren inguruan**

[1. liburua → Irizpideak: 1. Azkentasuna 2. Autoaskea 3. Bikaintasuna/desiragarriena/hoberena]

Helburua → Azken ongia. Helburua lortzeko → ezaugarri onak → onena → bertutea

- Ongi gorena → Bertutearen ezaugarri on horiei esker bideratzen den ekintza. Ona da helburura bideratzen denean, eta bertutearen arabera ekintzarekin lotuta dagoenean. Bertutea dispozizio bezala ulertuta eta ez zuzenean ongia dakarren bertute huts bezala.
- Zoriontasuna → bizimodu bat da, ez une konkretuak. Bizimodu ezberdinak aztertu horregatik.

Bizitza politikoaren helburua: Ohorea → heteronomoa, jendearen oniritzia

Ez dute bertutea bertutearengatik bilatzen

Bertute asko baino gehiago gorena den bat

Bizimodu hobereana → Kontenplatioa "*Bíos theoretikos*" Pentsamendua ez da pasiboa, ekintza mota 1 da" Jakintzaren arabera da

...Orduan zergatik du garrantzia politikak?

Legeak eta aisialdia ezarri → Bizitza kontenplatioa bizitzeko aukera/bermea.

NE politikarientzat idatzi zuela uste da, ez filosofiarako.

Arrazionaltasuna → bi modutan, bat gailendu [arrazionala > entzuten duena]

- Arrazionala (adimenezkoa) → bertute dianoetikoak. Esparrua: bertutean oinarritutako ekintza arrazionala.
- Irrazionala → arimaren atal begetatibo eta apetitiboarena → bertute etikoak

Platonismoari kritika → 3 tesi nagusi platonismoak

1. Ongi homoginoa: beti bat eta bera. Mundu fenomenikoan ongia direnak elkarbanatu ongi bat.
2. Bereizitasuna: Bereizirik dago ideien mundua
3. Ontasuna jakin baten berri duen pertsonak ez ditu zertan beste esparruetako ongiak ezagutu  
→ Beraz, ongia ez da komuna Platonentzat

### **2. Liburua: bertuteen inguruan**

[2. liburua → esparrua aztertu (bertuteena)]

Jakin nahi du zertan datzan gizaki ona izatea (eta txarra). Nahita egindako ekintzetatik jakin zein den ona

Arima aztertu behar → (Arima: begetatibo, sentikorra, arrazionala). Gorputza ez interesatu

Alde arrazionalak transformatzen ditu beste atalen grin eta apetak. Gizakiaren funtzioa ongira bideratuta, baina apetek desira ditzakete helburu ez diren ongiak (hau naturaren kontrakoa, beraz)

Arima arrazionala gorena (sentikorra honen menpe, beraz)

\*Sokratesen planteamenduaren ezberdin; bertutea ezagutzeak ez du beteko denik bermatzen

Bertutea → Bertutetsu izateko horren arabera jardun behar, ez da naturala.

Bertutetsuak diren pertsonen ekintzak jarraitu behar, ohituraz aztura sortu

Bertutearen esparrua: ekintzak. Gehiegikeria eta gabeziaren artean kokatu ekintza bertutetsuak.

Bertutetsua → pertsona bertutetsuaren ekintzak burutzen dituena, atseginez eta ongia helburu izanik

Bertute etikoak → azturaz lortu. Pasio eta ahalmenetik desberdindu.

Erdiko terminoa garrantzitsuena → hau subjektuaren arabera (ez aritmetikoki). Bi arrazoiengatik: erdiko terminoa hurbilago egon daiteke mutur batetik + joera naturala mutu batekiko

Genero: aztura                      Espezie: ekintzaren kalitatea/ erdiko bidea

(Kalitate oneko ekintzak izan behar dira, muturrak saihestuz, erdibidekoa)

...Erdi bide hau arrazionaltasunaren doktrina al da? Zenbaitek ezetz, irrazionaltasunera dagoela bideratuta.

...Nola bilatu erdiko bidea? Gabezia erantzuteko. Gehiegikeriara jo, erdi bidea topatzeko (?)

### **3. Liburua: borondatezko ekintzak; adorea eta neurritasuna**

Ekintzak → bertuteak sorturiko ekintzen arabera izan zoriontsu. (nola jakin bertutetsua den?)

Borondatezko ekintzak dira bertutearen isla → hausnartu eta hautatutakoak

#### Gizakiaren ekintzak → borondatezkoak / ez-borondatezkoak.

Borondatezko ekintzak jorrazteko → ez-borondatezkoak azaldu

Ez borondatezkoak:

- Mixtoak: nahi izan ez arren boluntarioak → barkamena jasotzen dute
- Ez jakituriaz: ez jakitea (mozkortzea) eta ez jakintasuna (barkamena eta errukia kasu honetan). Damutu → borondatezkoa. Ez damu → ez-borondatezkoak

Borondatezkoak:

- Ekintzaren printzipioa pertsona bera denean, baldintza eta ekintzaren objektua jakinik Hautapenak → borondatezkoak. Baina borondatea → ez da beti hautapena (umeak, bapatekoak...)

Hautapenak: aukera anitzen artean borondatez.

- Hausnargarriak dira, gure esku daudenean eta helburua zehaztugabe dagoenean.
- Ez dago lotuta atal irrazionalarekin, baina pasioek eragina. Ez da nahia, hau helburu bati loturik dagoelako; ez da iritzia, ez delako egia ala gezurra, ona edo txarra baizik.

Bertutearen borondatezko ekintzak: hausnartuak eta hautatuak.

Ekintzaren printzipioa norbera izanik, norbere esku dago bertutetsua izatea. Arrazoiak:

- Zerbait jakitea/ ezagutzea norbere esku dago (adib. legea)
- Helburuak norberak zehaztu (zuzen edo oker)
- Azturaren hasieraren eragile gara. Helburua hasieratik finkatu behar.

Bi bertute: adorea + neurritasuna

Adorea → konfiantza eta beldurraren artean (beldurretik hurbilago).

Gizakiarentzat beldurgarria denak adoretsua ere beldurtu, baina onartu eta eutsiko dio. Ongiaren izenean jasatea da adoretsu izatea.

- Gauzarik beldurgarriena: heriotza. Ohorezkoa gudan hiltzea, horregatik benetan adoretsuak onartu.
- Zer ez da adorea dirudien arren?
  - a. Politika → adoretsuak dira hiritarrak legeen ondorioen beldur ez direnean
  - b. Ezagutza → kasu partikularretan bakarrik
  - c. Amorrua → ausarta dirudi, arriskutsua da
  - d. Gehiagi fidatzea → Arriskuen aurrean ausartegi agertu
  - e. Ez-jakinak → Gezurretan bizi, errealitatetik ihesean

Bertute honen bidea ez da erreza, baina jasanez gero, plazera lortu.

Neurritasuna → (neurrigabekeriaren kontrakoa)

Neurrigabekeria: ez da arimaren plazera, gorputzeko plazerekin zerikusia. Batez ere ukimena eta dastamena.

Desio motak aztertu → Komunak: behar bat asetu (jan). / Partikularrak: gehiegikeria (janari konkretu 1 jan)

Bertuteak → gure esku bertutetsua izatea edo bizioaren arabera jokatzeko. Bertute bakoitzak esparru zehatz bat, eta esparru horietan suntsitu edo jardun daiteke.

## **5. Liburua: zuzentasunaren inguruan**

Justizia bertute etikoa aztertu: bertute osoa/orokorra/absolutua, beste pertsonetarako aplikatzen delako, beti besteekin harremanetan eman. Ez da bertute bikainena hala ere.

- Injustua: legeak hautsi eta desberdinkoia dena      -Justua: legeak betetzen dituen eta berdinkoia
  - ❖ Justizia orokorra → gauza guztietan egokia dena egitea: bertute guztiak honen parte (neurritasuna, adorea...)
  - ❖ Justizia zehatza/ partikularra → bertute etiko bat gehiago
    - Justizia banatzailea:
      - Ondarea eta ohorea
      - Proporzionalki banatzea (ez berdintasunez soilik, merezimenduz)
      - 2 subjektu 2 objektu → banaketa    4ak kontuan hartuta proporzionalki egin behar da, berdintasun kualitatiboa. Ez datza objektuen erdiko puntuan
    - Justizia zuzentzailea:
      - Borondatezkoa (justizia-trukatzailea, trukean edo harremanetan)
      - Ez-borondatezkoa
      - Garrantzia objektuek, ez subjektuek (berdintasun kualitatiboa ez da garrantzitsua). Objektuen arteko erdiko puntua da baliokidetzatza.
  - Ongi/ gaizki jokatzeko posible egin:
    - Azturak → ez ditu ekintza txarrak ekartzen, onetara bideratu
    - Bizioak → soilik ekintza txarrak ekarri
  - Arlo ekonomikoan:
    - Esparrua: ondasunena
    - Justizia: berdintasuna banatzerakoan (banatzen dena ona den heinean)
    - Bizioa: dagokiguna baina gehiago hartzea. Erdiko terminoa izan ordez, soilik mutur bat.

Erdiko terminoa berdintasunarekin harremana → berdintasun proporzionala

...Justiziaren esparrua? Justizia aztura da + hausnarketa eta gogoak hautapena bideratu. Banatu/ neurgarriak diren elementuekin du harremana. Elkartruke/banatzea egiten duen bi aldeetarako ardura.

## **6. Kapituluak: adimenaren bertuteak**

Gizakiaren helburua den zuzentasuna → bizitza kontentatiboa

Arimaren zati arrazionalak → bi atal

1. Zientifikoa → aldatzen ez diren elementuak (halaberrezkoak) aztertu
2. Kalkulatzailea → aldatzeko diren elementuak aztertu

Bi genero ezberdinetako gauzak ezagutzeko balio → bien helburua egia

Bakoitze bertute konkretuak aztertu behar:

- ❖ Bertute dianoetikoak: aztura intelektuala.

Adimenaren 5 bertuteak: [arteak, zientzia, zuzentza, ekintza, jakinduria]

Zuzentza lortzeko azterketa:

- Ekintza errepikatzaileak
- Helburuaren arabera ordenatu ekintza guztiak
- Soilik bertuteak
- Bertuteak bakoitza banan-banan aztertu eta hierarkizatu

Bost bertute etikoak: 1. Arteak → sorkuntzan ingurukoak, ez ekintzen ingurukoak

2. Zuzentza → ekintzen ingurukoak, ez sorkuntzen ingurukoak

3. Zientzia → arima arrazional teorikoaren aztura, egia ezagutu eta irakatsi

4. Jakinduria → bertute dianoetiko gorena

5. Adimena → printzipioen ulermenean datza

- Jakituria → goren. 1. printzipioak aztertu errealitatearen gradu orokor edo unibertsalenean. Gauza hobereak aztertu eta hauen egia eman
- Zuhurtzia → goren arteen artean. Zuhurtziaren helburua: giza ongiaren ingurukoa. Ona eta txarra dena bereizi, mailakatu eta hausnartu. Honen bidez zuhurki (zuzen) jokatu.
- ❖ Bertute etikoak: Esparrua: ekintza. Arimaren atal irrazionalari lotuta. Bertuteak aztura dira, baina soilik momentu jakin batean jokatu hoiekin.  
Egoera/estimulo jakin batzuen aurrean erdiko bidea jarraitzea. Zuhurtziak bideratu erdibidea eta aztertu bertute etikoak.
- 1. aztertu arimaren atal sentikorren bertutea → Etikoa  
Irrazionala eta arrazionala (arloan ezberdinetan)  
Desiren aurreko aztura izatea, arrazoi zuzenaren arabera erdi-puntua bilatu  
Bertutetsu izateko disposizio badago (naturaz) baina ez da deliberatua  
Zuhurtziak bideratu gaitz morala  
Zuhurtzia ↔ Politika  
Zuhurtziak lagundu jakituria giza-ongiaren artean goren gisa identifikatzen

### **7. Kapituluak: meneratzea eta meneratze eza**

(bertute etikoen inguruko eranskina → meneratzea eta meneratze eza landuz)

Konturatzen da → bertute eta bizioen nozioek soilik ez dute errealitatea ondo azaltzen

- Bertutetsuek: pentsamendu egokia + desira egokia
- Biziotseuek: pentsamendu okerra + desira okerra
- Baina... gertagarria da pertsona batek pentsamendu egokia + desira okerra edo kontrakoa izatea.

Intelektualismo moralaren aurka: ekintza kaskarra ez da ezagutza eza, atal irrazionalaren desira indartsua eta honen meneratzea baizik.

Meneratze eta meneratze ezak determinatu → pentsamendua zuzena izatea + desira okerra

Desira irrazional honen iturria sentitiboa (ukimena eta dastamena)

Kontrol ezaren arrazoiak anitzak: ezagutza unibertsala bai eta partikularra ez izatek, ezagutza operatiboa ez izatera arte → horregatik meneratzea eta meneratze ezak atal irrazionalarekin zerikusia, prozesu fisiologikoarekin dute lotura beraz.

→ Honek ez kendu erantzukizuna, desira meneratzeko aukera baitago → horregatik ekintza borondatezkoa da.

Meneratzea eta meneratze eza ez dira azturak... baina aztura sor dezakete etengabe errepikatuta → biziora edo bertutera eramanez.

### **8. Kapituluak: (8-9 liburua laguntasunari buruz)**

Laguntasuna → kontzeptu zabala, berdinak diren edo desberdinak diren bi pertsonen artekoa.

Gizakien berezko/naturala den ezaugarria.

Laguntasunaren kasu zentrala? → Berdinak/antzekoak diren helduen arteko bata-bestearekiko afektu/maitasuna + elkarrekin denbora pasatzea. Laguntasun perfektua alegia.

Laguntasun mota ezberdinak (nerekiko?): 1. Berez ona denarekiko

2. Berez atsegina denarekiko (plazer iturri)

3. Niretzako ona denarekiko (olibondoan ditu) → gaiztoa

4. Niretzako atsegina denarekiko (sexua dugu) → gaiztoa

- 1 eta 2 kasuak → Hauek dira laguntasunaren kasu zentralak, norbait maitatzea delako haren ezaugarriengatik. Zerbait ona denean, atsegina izan behar, baina plazer objektiboak dira.
- 3 eta 4 kasuak → 3 erabilgarritasun/onuraren arabera da eta 4 plazeraren arabera. Ez dira garrantzitsuenak, hauskor eta aldakorak dira.

- Laguntasuna gaiztoen artean → ez da posible. Denbora laburrekoak eta ez iraunkorrak.
- Kasu guztietan... azturak iraunkortasuna dakar eta ondo/gaizki harremantzeko ohitura sortu

Justiziarekin harremana: justizia bertute garrantzitsua, bestearekiko harremanean egiten delako, bien oniritzia, elkarrekikotasuna exijitu. Elkarrekikotasuna=laguntasuna ez izan arren, beharrezkoa. Justizia bezala, laguntasunean proportzioa (bertute zibikoa) beharrezkoa. Baina...justizia dugunean zerbait falta, laguntasuna dugunean ez → justua baino laguntasunik ez: batasunik ez.

#### Hirian zer?

- Batasuna behar → justizia harremanak bermatu behar. Hiria defendatu behar denean batasun politikoa behar, elkar babestu behar → Laguntasun politikoa ematen da (ez kasu zentrala).
- Hiriaren barruan laguntasunak batasuna bermatu, justiziak baino gehiago.
- Naturaz gizakia gizartean/elkartean bizi → familia >herrixka >polisa → Oinarrizko elkartea familia izan arren, autarkikoa ez denez elkarre handiago baten beharra. Familian batasuna sortzeko laguntasun harremanak eman, baina desberdinen artekoa. → Polisa beharrezkoa autarkikoa den lehen elkartea delako.
- Gizakiaren zorientasuna → bakarrik taldean

Laguntasuna bertutea da? Ez, baina lagunak bertutetsuak. Ona delako maite laguna eta ona=bertutetsu. Ezin maite gaiztoa dena, eta bestela hauskorra.

Gure burua maitatzearen inguruan? Argi gure burua maite du → onuragarria edo ez (depende)

“Autos” norbera → gizakia zerbait bada, bere atalik bikainena da → arima arrazionala alegia

- Norbait berekoa bada eta gehiegikeriak desio baditu txarra da bere burua maitatzea, arima sentikorrek men egiten ez diolako arima arrazionalari.
- Hautatu behar da → atal arrazionalaren desirak jarraitu, zuhurtzia baliatuz.

### **9. Liburua**

#### Berezko laguntasunean sakondu

- Laguna “beste nia” bezala definitu; maitatu, haren existentziagatik poztu, berarekiko enpatia izan eta berarekin denbora pasatzen dugula zehaztu.
- Kanpo ongi garrantzitsuenetarikoa
- Oinarria norberarekiko maitasuna, soilik ona denak eta haren burua maite duenak maite ditzake lagunak.
  - Norberarekiko maitasuna benetakoa eta arrazoimenaren bidezkoa izan behar da (gainontzeko berekoikeria da, injustiziaren iturri dena ez laguntasunarena).

### **10. Liburua**

#### Plazeraren teoria

- Plazera = Ekintza bat osatzen duena, ez da ekintza bera, ez prozesua, ez generazioa.
- Helburu baten moduan funtzionatu.
  - Funtzio hori gauzatzeko beharrezkoa: Plazeraren eta ekintzaren arteko lotura haustezina. Ekintza baten gauzatzeak → plazera ematen du Plazerak → ekintza erabateko gauzatzera mugitzen du Ekintzaren forma aldatzean plazera ere aldatzen da, hortaz, plazera bere horretan ez da on ezta txarra, biak bereizi daitezke ekintzaren formaren arabera.
  - Zorientasunera heltzeko plazera gizakiaren berezko funtzioaren araberkoa (bizitza zorientatua berez da atsegina), zitalak beste edozertan topa dezake plazera.

Gizakiaren berezko funtzioari begiratu: gizakiari dagozkion (berezko funtzioaren arabera direnak) eta ez dagozkion plazerak bereizi. Ni-a arima denez, arimarekin lotzen dira berezko plazerak.

- Gizakiaren zorientasuna, bertutearen arabera ekintza eta bizitza, kontenplazioan (ikustea, ezagutzea) eta jakiturian (bertute dianoetiko gailena) oinarritzen da, beste bertuteak ere beharrezkoak badira ere.

\*\*\*Azken ideia hau ez dator guztiz bat politikan esaten duenarekin: Zorientasunaren praktika gorena politika dela. Ustezko kontraesan honi irtenbide bezala bide ezberdinak planteatu: bizitzan kontenplazioan + politikan jardun behar dela.\*\*\*